



## 40 urte

**D**uela 40 urte iritsi zen euskaldun bat gure planeta honen gailurrera. Orduko hartako irudiak ikusteak barrenak mugitu dizkit. Martin Zabaleta buru zuen espedizioaren lorpen gogoangarriari meriturik kendu gabe, gogoas-tindu didana herriak emandako erantzuna izan da. Herri lorpen gisa ospatu zen. Euskaldun guztion garaipena bailitzan. Herri harrotasunez. Harrokeria puntu batekin, nahi bada. Izaera berezitu bat ageri da, euskaldunaren eraikuntza idealizatua: aldarrikatzailea, nekaezina eta menderaezina. Epika partekatu bat, euskaldunak munduan kokatzeko gogo bat. Noiz eta non galdu genituen?

40 urte barru gogoratuko ditugu bizi ditugun pandemia garaioak. Herri errelato argirik gabe, tamalez. Euskaldunok nola erantzun genion egoera hari? Ez dago Madril edo Parisetik pasatzen ez den erantzunik. Eta ez naiz ari soilik burujabetza faltari edo zatiketa administratiboari buruz. Norbanakoetatik hasi eta imaginario kolektiboa gurutzatzen duen kontua da. Gogoratuko dugu txalo jo gurela Granadako edo Murtziako herritarrekin batera, baina ahaleginduta ere ez ginela gai izan Aberri Egun bereziki entzutetsu bat ospatzeko. Gogoratuko dugu gure zientzialariek testak egiteko modua sortu zutela eta erakundeek ez zutela behar bezala baliatu.

Krisi guztiek bezala, koronabirusak eragindako muturreko egoerak eskaintzen zuen, bada, paradarik, epika berriak

Gailurra jotzeko falta  
genuen bakarra  
hauteskundeak ziren.  
Osasun larrialdi  
baten erdian eta  
jendartea shockean  
dagoenean, Euskal Erdia  
gobernatzeko  
hautes-lehian sartzea

ehuntzeko. Egon bazeuden aukerak. Alabaina, guk baino, Espainiako Estatuak egin du hori. Gauza garrantzitsuak kudeatzeko: aginte bakarra. Una y grande. Garbi ikusi dugu zeri buruz ari ziren autogobernua gurea esaten zigutenean: Madrilera baimen eske autoz joatea da autogobernua. Eta guk (modu zabalean ulertuta, erakundeetatik hasi, alderdi politikoetatik pasa eta norbanakoetan bukatuta) ez dugu erantzun. Euskalduna etzan eta otzan.

Euskarak jaso duen trataerari begiratu baino ez dago gure noraezaren jabe izateko. Adierazpen garrantzitsuak erraz hutsean egin zaizkigu eta euskarazko telebista publikoa baliabidez eta edukiz hustu da. Ifrentzuan, badira gogoratuko



ESTITXU GARAI ARTETXE  
EHU-KO IRAKASLEA

ditugun harribitxiak. Herri eta auzoetako laguntza eta zaintza-sareak, mugimendu feministak bultzatutako "bizihotsa" erresistentzia kutxa edo udaletan abian jarritako ekimen txalogarri asko, bestek beste. Edonola ere, nazio errelatoa ehuntzeko zumitzak eskasak izan dira.

Gailurra jotzeko falta genuen bakarra hauteskundeak ziren. Osasun larrialdi baten erdian eta jendartea shockean dagoenean, Euskal Erdia gobernatzeko hautes-lehian sartzea. Datorrenari aurre egiteko elkarlana bultzatu beharrean alderdien arteko norgehiagoka gupidagabeari bide ematea. Batzuen lehentasuna zein den argi dago.

Katalunian bestela jokatzeko ari dira. Egia da han ere alderdien interesek markatzen dutela gidoia azken aldian, baina behintzat beste narratiba bat eraiki dute: badute sinesmena Kataluniatik hobeto kudeatuko luketela egoera. Ahalegindu dira Madrildik inposatutako aginte bakarrari erantzuten. Hauteskundeak alde batera utzi eta batera arraun egiteko unea dela aldarrikatu dute. Kataluniaren eta bizitzaren alde. Torra presidenteak berriki argitaratutako artikulua bukatzeko erabilitako hitzok garbi islatzen dute jarrera hori.

Koronabirusa pasako da, baina beste gaitz asko gure artean geratuko dira. Herri izateko grina da herri izateko lehen urratsa. Ez dakit horretarako txertorik topatuko ote dugun, baina bilatzeko gogo edo ekimen eza da larriena. ●